

XagunArtea

2012ko uztailaren 25a

Xagun aldizkaria

79. alea

Zorionak Liztormendi!



50 urte bete ditu aurtan Zeraingo soziedadeak, Liztormendi elkarteak. Urteurren garrantzitsua ospatzeko, uztailaren 14an festa egin zuten bazkideek. Garai batean urteroko bisitari ziren Lopategi eta Azpillaga bertsolariek lagunduta, giro ezin hobean joan zen eguna. Hurrengo ospakizun ekitaldiak irailaren 29an egingo dira kultur elkartearekin batera.

Oiharten eskaintza turistiko berria daukate

Oihartek, nekazalturismoa eta sagardotegia ardatz hartuta, hainbat pakete turistiko berri sortu ditu. Bisitarietara sagardoaren ondarea eta kultura gerturatzeko eta antzinatik datorren tradizio baten esperientzia bizitzeko aukera ematea dira ekimen berri honen helburuak.

Txotxeko denboralditik kanpo ere, sagardotegian katak, sagardoaren prozesua ezagutzeko bisita gidatuak, hamaiketakoak eta antzeko esperientziak eskainiko dituzte aurrerantzean. Modu honetan, Zeraingo turismo eskaintza handitu egingo da, eta herriko zerbitzu ezberdinen arteko elkarla-



nerako aukera gehiago sortuko dira.

Sagardotegira bisita, katak, hamaiketakoak, bazkariak eta gaua pasatzeko aukera uztartuz, lau eskaintza berri jarri dituzte martxan: *Oiharte bisita*, *Oiharten dastatu*, *Oiharten gozatu* eta *Oiharten kata*. Informazio gehiago oiharte.com helbidean aurki daiteke.

Petrikilloren gurutzeta Zerainen da



Uztailaren 6 iluntzean, Petrikillori buruzko hitzaldi batekin, haren omenezko gurutzeari ongietorria egin zitzaion. XIX. mendeko kurandero eza-gunaren hilarria jaioterrira itzuli da.

Andramari jaiak 2012

Gain-gainean ditugu aurtengo herriko festak. Hilabete baino gutxiago geratzen da Andramarietarako. XAGUARTEAK aurtengo jaien egitaraua aurreratzen die herritarrei:

Abuztuak 13.

*Arratsaldeko 6etan: herritarren III. pilota txapelketako finalaurrekoak
*Arratsaldeko 8etan: ohiko gibel-jatea Liztormendi elkartearen

Abuztuak 14: ANDRAMARI BEZPERA

*Goizeko 11etatik aurrera: umeentzat puzgarriak eta rokodromoa egongo dira plazan egun guztian
*12:30etan: "Elena Mendizabal Oroimena" Goikoetxera II. igoera txirindulari proba herritarrentzat.
*13:30etan: haur-bazkaria
*16:30etan: haur-jaialdia (dantzak, antzerkiak...) eta jolasak
*Ondoren: merienda eta buruhan-diak.
*Arratsaldeko 8etan: pregoia, suziriak eta kanpai-bueltakoak festei hasiera emateko.
*Segidan: sagardo-edana eta txekor-jana.



*Gauetan: erromeria Ingoaldeu taldearekin goizaldera arte.

Abuztuak 15: ANDRAMARI EGUNA

*Goizeko 9etan: txistularien goiz-eresia etxez etxe.
*Goizeko 11etan: Meza Nagusia
*Goizeko 10etatik aurrera: Andra Mari bola txapelketaren hasiera.
*Eguerdiko 12etan: herritarren III. pilota txapelketako finala
*Eguerdiko 12:30etan: txakolin dastatzea herriko musikariek alaituta.
*Arratsaldeko 5etan: bola txapelketaren bigarren saioa
*Arratsaldeko 6etan: herri kirolak.

*Arratsaldeko 7etan: 40 urtetik gorakoen VIII. dantza txapelketa.

*Iluntzeko 8etan: triki-poteoa moztortuta.

*Gaueko 9etan: Mozorro afaria Oiharten (txartelak Mandio dendan egongo dira salgai eta beharrezkoa izango da moztortuta joatea)

*Gaueko 11etan: erromeria Trakets taldearekin.

*Goizeko 1ean: Mozorro desfilea.

*Ondoren: erromeria goizaldera arte.

Abuztuak 16: SAN ROKE EGUNA

*Goizeko 9etan: txistularien goiz-eresia etxez etxe.

*Goizeko 10etan eta arratsaldeko 5etan: San Roke bola txapelketaren hasiera.

*Goizeko 11:30etan: Meza Nagusia

*Ondoren: herriko agintarien dantza-soka.

*Eguerdiko 13etan: gazta probatzea.

*Arratsaldeko 5:30etan: Herriko gaztetxoaren arteko pilota partidak

*Iluntzeko 8:30etan: Herri afaria, bertsolariek lagunduta.

*Gaueko 12:30etan: Asto karrera

*Ondoren: erromeria Dantzadi taldearekin.

Denbora libreko ekintzetan dabilta haurrak



Udako opor garaian, uztailean, herriko haurrak denbora libreko ekintzetan dabilta. San Fermineko entzierroa ere egin zuten egun batean.

Mutiloara jaietsiera sagardoa edatera



Urteroko moduan, aurten ere Mutiloko San Pedro jaietako sagardo dastaketara zeraindarrok jaietsiera egin genuen umore ederrean.

Zintz, zintzatu, zintz egin

Harritu egin naiz, benetan, hitz hau ere galtzen ari dela esan didatenean. Ez nuen halakorik espero. Horregatik galdetu diot Xantiri, Mandion elkartu garenean: Zeraingo gazteek eta neska-mutilek *zintz egiten* ez badute, nola esaten ote diote mukiak kentzeari? Nola esaten ote diote horretarako egiten den haize-botatzeari? Berak ere ez zekien seguru. Hitz hori proposatu zaigunean, ordea, zerbaitegatik da. *Zintz* hitza, *zintzatu* aditza edo *zintz egin* aditz-elkarteak ez dabilta indar betean. Ez, behintzat, Zeraingo gazteen eta neska-mutileen artean.

Gatozen harira. Hitz zaharra da *zintz* hori, itxuraz. Zaharra eta, hori seguru, zabal hedatua. Gutxitan topatzen dugu zazpi probintzietan hau bezain bizirik dagoen (edo orain gutxira arte bizirik egon den) hitzik. Gaurko hau da horietariko bat. Bizkaitik hasi eta Erronkariraino edo Zuberoaraino, alderik alde erabilitako hitza da *zintz*, *zintzatu* edo *zintz egin*.

Bere esplikazioa ere ez da konplikatua. Adiera argia du *zintz* horrek, OEH hiztegian, iparraldeko hizkera gehienetan: *mukia*. Bi esplikazio nagusi ematen ditu hiztegiak, batean gaztelaniaz eta bestean frantsesez:

1. *moco*. Hona zenbait adibide: Zuberoako hizkeran badüzü haur zunbait bethi zintza südürretik tzilintzau dienak; hay algunos niños que tienen siempre moco colgando de la nariz. Bide beretik doaz *txintxa ta erro*, mocos y gargajos. Erronkarin jaso da, antza, ondoko esaldi hau: ezdu berze ontarzunik / baizik txintxa eta erro franko, / lagañazko begi gorriak / itsusi eta jenioa gaxto.

2. *txintx, sins*: onomatopeya del ruido que se hace al sonarse, al limpiar la nariz. Effort que l'on fait pour dégager le nez du mucus qui l'obstrue. Action de se moucher.

Esateko moduan ere diferentzia

txikiak ditu hitzak, leku batetik bestera: *txintxa*, *txintz*, *tzintz*, *zintz*. Hitz horretatik datoz aditzok: *zintzatu* batetik, *zintz egin* bestetik. Biak entzuten badira ere, bigarrena da gure artean ezagunena. Adiera bera dute, halere, batak eta besteak.

Zintz egin: Bizkaian eta Gipuzkoan, hori da aditz-forma ezagunena. Nafarroan eta Lapurdin ere ezaguna da dena den. *Txintx eiñ* esaten diote, horrela, Oñati-Bergara aldean. Guztiak bat datoz definizioan: sonar(se) la nariz; souffler, moucher. Añibarrok, orain dela berrehun urte inguru, honela definitzen zuen: (quitarse los) mocos. Bide beretik doaz han-hemen bildutako adibideok ere: *Egizue zintz*, *mouchez-vous*. Baita Bizkaiko beste hau ere: *Sarriago zintz egingo bazendu, etzendu ke orrenbeste doministikun egingo*, si se sonara más a menudo, no estornudaría usted tantas veces. Oñati aldean jaso da hau: *Mokua zintz eiñ, txintx eiñ*, en lenguaje infantil sonar las narices. Bergaran jaso da hau Martin Elexpuruk, hain aspaldi ez dela: *Hodei, artu paiñolua ta zintz eiñ*. Baztangoa da, azkenik, ondoko hau: *Beti mukiekin, zintz in ta garbitu sugu-rre*. Apaolazak, Antzuola-aldeko kontuez ari zelarik, honela zioen: *Abiatu ziraden etxabola aldera, batek gerrikoa lotu, besteak zintz egiñaz*.

Hizkera jasoagora ere iritsi izan da hitz hori, idazle landuen eskutik. Zaitegi batek, Platon-en kontuez ari zelarik, honela zioen: *Axola bage, mukitzu ikusten baitzaitut, eta ezpaitizu bear dezazunean zintz egiten erakutsi*. Antzera dabil Erkiaga: *dindirria sarri bai sarri egon oi zan aren sudurretatik dindilizka, zintz-egiteko bere, ganora aundirik ez-ta*. Nemesio Etxanizena da, berriz, ondoko hau: *emakumeak, musu-zapia atera ta zintz egin du*. Ume txikiei eta neska-mutilei ere sarri esaten zaie, azkenik, honelakorik: *zintz*, voz con que se excita al niño a que se suene; interjección que se les dice a los chicos para que se suenen las narices en el pañuelo cuando éste les es

aplicado a la nariz y se les invita a que hagan fuerza para expeler los mocos.

Zintzatu. Sonarse las narices, quitarse los mocos; limpiar las narices. Iparraldean forma hau da erabiliena. "Moucher, se moucher [...]. Zintza zaitte, mouchez-vous". Nafarroan, euskara galdutako leku batzuetan, bizirik jarraitu du *zintz* horrek erdal hizkeran: Lizarran eta San Martin Unxen, adibidez, honelakoak jaso izan dira: cinzar, sonar las narices. ¡Cinza! se les dice a los chicos para que expulsen los mocos (Estella). En San Martín de Unx circir. Iparraldekoak dira, azkenik, adibideok: *borthizki zintzatzen denak, odola ilkhitzen du*. *Esar ditzagun [...]* *ehun haur*. *Zintzatu ondoan, iker dezaiegun bat bederari sudurra*. *Nola nahi duzue hoinbertze gauza sar ditzen haur baten buruan, zintzatzen ere doi-doi dakiten adinean*. Badira aditz-forma berezixekoak. Azpeitian, adibidez, ondoko hau jaso izan du Gotzon Garatek: *umeari mukiak zizten ari naiz* (junto a zintzarazi, zintz erañizi, etc., de otras zonas).

Kontuak kontu, galtzen ari omen da Euskal herri osoko hitz hori Zerainen. Oraingoan ez digu balio, aldakuntza ekonomikoa, teknologikoa eta gaineratiko berrikuntza-moderik aipatzeak. Oraingoan ez digu balio tresna bat xaharkitu egin dela eta, horregatik, tresna hura izendatzeko hitza ere xaharkituz eta galduz doala esatea. Besterik da hemen gertatzen ari dena. Eguneroko hizkera, familiakoa, ari zaigu indargabetzen, ahultzen eta xoitzen. *Zintz egiten* ez duen hizkuntza ez tulak baino larriagoko gaitzak mendean harturik dauka.

Mikel Zalbide



Xagu-txoko



Babesetik

EKAINA	al	ar	az	og	or	lr	ig
					1	2	3
Euria (l/m)	GUZTIRA: 49 l				0	1,5	1,5
C° altuena	ALTUENA: 35,5 °				31,5	32	19
C° baxuena	BAXUENA: 8,5 °				15	19	14
	4	5	6	7	8	9	10
0	0	0	0	1,5	0	0	2
C° altuena	22	28	25	30,5	18	23	26
C° baxuena	13,5	10	13	17	13,5	8,5	14,5
	11	12	13	14	15	16	17
Euria (l/m)	18	4,5	0	0	0	0	0
C° altuena	24	21	20	30	31	31,5	26
C° baxuena	14	11,5	12	10	13	16	14
	18	19	20	21	22	23	24
Euria (l/m)	6	13	0	0	0	0	0
C° altuena	17	25	29,5	28,5	23	23	29
C° baxuena	15	14	15,5	15	9	13	13,5
	25	26	27	28	29	30	
Euria (l/m)	0	0	0	0,75	0,25	0	
C° altuena	29	30	35,5	33	25	30	
C° baxuena	13	15	18	20	16	14	

Ekainean denetik

Ekainean eguraldiak denerako eman du. Hasi nahiko epel egin zen, nahiz eta busti ere egin zuen. Gero, euria eta tenperatura freskoa iritsi ziren. Eta hila amaitzeko sekulako bero zakarra izan genuen azken astean. Guztira litrotan gehiegi bota ez bazuen ere, zerbait egingdako egunak 10 izan ziren. Eguzkiaren eta euriaren laguntzaz ekainean bazterrak berde eta loratuta geratu ziren. Adibide moduan Aizpitako ortentsia eder hauek ikus ditzakegu.



Jubilatuak eskurtsioa



Herriko jubilatuak urteroko eskurtsioa egin zuten San Fermin egunean. Araba aldean, Añanako gatzagak ikusiz, egunpasa ederra egin zuen argazkiko koardila honek. Sasoiko daude oraindik gure adinekoak!

“Isla de Pascua”tik Zeraina bisitan



Ozeano Barean dagoen “Isla de Pascua” (Txile) irlako nekazari batzuk Zerainen izan genituen bisitan. Besteak beste, gazta eta sagardoa nola egiten diren ikusteko aukera izan zuten.

EHUren udako ikastaro bat Zeraina bisitan

Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen dituen Uda ikastaroen baitan, Ondare industrialari buruzko kurtsoko ikasleek Zeraina egin zuten bisita. Ekainaren 28an etorri ziren, eta Aizpeko burdinaren mendia bisitatu ostean, afari-merienda eginez amaitu zuten ikastaroa.



Sasieta etxeetara deika hasiko da aurki

Sasieta mankomunitatea etxeetara deika hasiko da aurki, konpostari buruz galdezka. Ea zenbat etxetan konposta egiten den, eta ea zenbatetan egin nahiko litzatekeen jakin nahi du Sasietak.